

## Gipuzkoako Hilarri Biribilak, Segurako berri bat aurkertuz

JUAN SAN MARTIN

Iragan neguan Seguratik bertako arte gaiez mintzatzera deitu ninduten batean, harremana izan nuen gazteetariko batek hilarri itxurazko harri biribil batez jakitun ipini ninduan. Gaua zenez, urrengo batean ikustera joatekotan gelditu nintzen. Rafael Berasategi zen gazte hura. Esan zidanez, zaharren babes-etxeko baraztean aurkitu omen zuen eta bertako mojen baimenez bere etxera eraman, Lardizabal jauregian udaletxe berria jartzen denean hara emateko asmoz. Orduan agertu zidanez, harri biribil zapal bat omen zen, leporik gabekoa, baina gurutzeduna.

Udaberriko egun batez joan nintzen hura ikusteko asmoz, baina bera ez nuen arkitu eta harria ikusi gabe itzuli nintzen. Ekainaren batean ordea, berriz jo nuen Segurara, alde aurretik mutil hura ezagutzen zuen Jose Mari Telleria adiskideari gaztigatuz.

Segurako kale Nagusiko 26.ean, Juan Berasategi, Rafaelen aitak erakutsi zidan harria. Hara hemen bere xehetasunak:

Lepoa hautsitako hilarri biribila. Hareharizkoa izatez. Bere biribilean, diametro neurria, 36,5 zentimetro; sendoeran 12,5 zm.; eta lepoaren zabala, hautsitako tokian, 23 zm.

Eli alderdiak ez ezik biribilaren bizkarra bera ere marraturik du. Orainarte Gipuzkoan aurkitu direnetatik bizkar marratu bakarra da.

Alde batean gurutze bikotea du, bere behealdetik eta ezker-eskubitik ezagutu ezinezko zizel marka batzukin. Eta hegalaren bira guzian epaiki hortzen erazko puntatxoak apaingarri, hilarrietan maiz agertzen diren horietakoak. Ertzak hautsita edukiarren apaingarri hori garbi agertzen da.

Bestaldetik, paradun gurutze bat du. Bere ezkerreko besoan, zizel marka ezezagun bat, beste alderdikoan antzerakoa; eskubialdekoan ere berdina zuen nonbait, baina marrak hautsita dituan ezta erraz igartzen. Goikaldean, beso barnean, izar itxurazko marrak ditu, Colás-ek Mendiben (453. hilarria) katalogatu zuenaren gisakoa. Behekaldeko besomuturrean ordea, izar bat, zirkulu baten barnean.

Bizkarraldea, bere bira guzian, epaiki-hortz idurizko marraz bi zerrenda. Sorhapuruko baten oroitza dakar (Colás, 745. hilarria).

Marrazkiok aintzat harturik eta Donostiako Hoja de Lunes-ko artikulua batean (1980-IX-29) agertzen nituen aburuak kontuan izanik, Segurako hilarri biribil hau Erdi-arokotzat jo genezake.

Hilarri biribil hau Seguran orainarte aurkitu direnetan laugarrena da. Lehenago M. Laborde, L. Peña Basurto eta F. Leizaolak aurkitu eta adieraziak dira. Gipuzkoa osoan ordea, orainarte aurkitu direnak hogeta hiru besterik ez dira eta gehienak Goierri aldean Segura ingurukoak. Guzien berriak aski sakabanaturik daudenez, merezi du orrialde haue-tan beren adibidea biltzea, ondorean jarriko dudan bibliografia zehatz batekin osatzeko.

E. Frankowski (1920) izan zen lehenhiru hilarrien berri eman zuena, Gabiri eta Ormaiztegiakoaren zehaztasunez eta Leinzko Gatzagakoaren aipamen soilez. Gaur egun Donostiako San Telmo museoan daudenak. Baina Gipuzkoako hilarrien katalogatze lanik handiena Manuel Laborderi (1964) zor diogu. Honak bildu zituenak. hamabi ziren guztiz: 8 Zegamakoak, 3 Zeraingoak, Segurako bat, Muti-

loako bat eta Oñatiko bat. Segurako bakar hori Errebaleko Erretazarrenea deritzan etxearen horman aurkitzen dena, armarri baten ondoan; P. Gorosabalek aipatzen zuen hau bere *Diccionario Histórico-Geográfico de Guipúzcoa* (1862) lanean. Antza denez, XV. mendearen lehen partekoa izan behar du.

Laborderen lan horregandik urte-betera, L. Peña Basurtok eman zigun Segurako San Andres ermitako baten berri, *Munibe* (1965) aldizkarian, eta F. Leizaolak beste batena aldizkari berean (1970), parroko ateondoan aurkitua. Geroztik, hilarri hau, Zurbano etxearen baratzera eraman omen zuten, baina nik ezin izan dut aurkitu.

G. Manso de Zúñigak Irunen J. González Salís-ek aurkitutako biren xehetasunak argitaratu zituen *Bol. R. S. V. de los Amigos del País* aldizkarian (1972) eta azkenik, Manso de Zúñiga berak *Museo San Telmo* (1976) deritzan liburuan eman dituen berrien artean E. Frankowski-k aipatzen zituen Leinzko Gatzagakoa eta Ormaiztegiokoz gainera Amezketako bat ere agertzen du. *Museo San Telmo* liburua 50. orrialdean, huts nabarmen bat dakar, Frankowski-k bere liburua 54. orrialdean dakarren hilarri berbera, Gabirikoa izanik, Monjardingotzat ipini bai du.

Horiek ziren orainarte Gipuzkoan aurkituak, eta Segurako berri honekin 23 dira guztiz.

Irakurleak, zehatzago ezagutzerik nahiko balu, ondoko bibliografian aurkituko ditu argitalpenen xehetasunak.

Dena dela, hilarri biribilen gaia sakonago ezagutu nahi duenak kontuan izan behar du hontaz idatzi diren honako liburu hauek: Aipatutako E. Frankowski-ren *Estelas discoideas de la Península ibérica*-az aparte L. Colás-en *La Tombe basque* (Miarriz, 1923-24) eta J. M. Barandiaranen *Estelas funerarias del País Vasco* (Donostia, 1970). Azkenik, baita ere esan beharra dugu katalogatzeaz azken urte hauetan Nafarroako «Príncipe de Viana» Elkargoaren babespean argitaratzen den *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra* aldizkarian bildu den lana txalogarria dela. Aurrerantzean, gai hauetaz ezer aztertu nahi duenak, lan horietara jo behar du.

#### RESUMEN:

En base a una nueva estela discoidal descubierta en Segura, cuya data se puede re-

montar al alto medioevo, se hace una reseña general de las hasta ahora halladas en la provincia de Guipúzcoa, con referencias de las publicaciones donde se dieron a conocer y su distribución que es de la manera siguiente: 8 en Cegama, 4 en Segura, 3 en Cerain, 2 en Irún, 1 en Mutiloa, 1 en Gaviria, 1 en Ormaiztegui, 1 en Amézqueta, 1 en Oñate y 1 en Salinas de Léniz. En su mayoría catalogadas por M. Laborde y otras debidas a E. Frankowski, L. Peña Basurto, F. Leizaola y G. Manso de Zúñiga, por orden cronológico. Para exponer finalmente la bibliografía general de los trabajos donde se recogen noticias y catalogaciones de las estelas discoidales de Guipúzcoa.

La descubierta recientemente en Segura tiene las siguientes características: es de piedra arenisca, con el cuello truncado y perdido y con ornamentación por ambas caras. El disco mide 36,5 centímetros de diámetro, con un espesor de 12,5 cm., y el cuello, en el lugar de la rotura, tiene 23 cm.

En una de las caras lleva una cruz teutónica, con una estrella a modo de roseta de seis pétalos en la parte baja y una estrella o astro solar en sentido giratorio, muy estilizado, en la parte alta, que recuerda la filigrana de una de las estelas de Mendive (L. Colás, núm. 453). En los brazos lleva otros ornatos difíciles de interpretar. Por la otra cara puede ser bicrucífera o cruz demalta si tomamos por unión a cada dos brazos que nos apoyaran a interpretar las inserciones a cincel que aparecen en la parte baja y a ambos lados de los brazos. Sobre este dibujo bicrucífero, lleva por el borde en toda la periferia, la ornamentación diente de sierra, cosa muy frecuente en las estelas funerarias y que podríamos emparentar con la que se halla empotrada en la pared de la casa Erretazarrenea del mismo Segura, reseñada por M. Laborde.

Esta de ahora tiene la particularidad de ser, hasta la fecha, la única de Guipúzcoa con el canto ornamentado. Donde lleva una doble hilera de diente de sierra, bastante deforme, que recuerda a la periferia de una de las estelas de Sorhapuru (L. Colás, núm. 745).

Para un conocimiento de las estelas discoidales y los ritos funerarios en torno a las mismas, se recomiendan fundamentalmente,

además de la obra de E. Frankowski, *Estelas discoideas de la Península ibérica* (1920), *La Tombe basque* (Biarritz, 1923-24) de L. Colás y *Estelas funerarias del País Vasco* (San Sebastián, 1970) de J. M. de Barandiarán. Finalmente se aporta la referida bibliografía, correspondiente a las guipuzcoanas.

### BIBLIOGRAFIA

Pablo de Gorosábel. *Diccionario Histórico-Geográfico de Guipúzcoa*. Tolosa. 1862. Pág. 503.

Eugeniusz Frankowski. *Estelas discoideas de la Península ibérica*. Madrid. 1920. Págs. 54-56

Manuel Laborde Werlinden. «Exposición de catorce nuevas estelas discoideas situadas en la provincia

de Guipúzcoa». Volumen *Homenaje a D. José Miguel de Barandiarán*, tomo I, Págs. 193-155. Bilbao, 1964.

Luis Peña Basurto, «Una nueva estela discoidea en Guipúzcoa». *Munibe*, XVII, 1965, pp. 121-122.


Fermín de Leizaola. «Hallazgo de una nueva estela discoidea en Guipúzcoa». *Munibe*, XXII, 1970, pp. 73-76.

Gonzalo Manso de Zúñiga, «Estelas de Irún», *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País*, XXVIII, 1972. pp. 596-599.

Gonzalo Manso de Zúñiga, *Museo San Telmo*. Bilbao, 1976. Págs. 41, 48 y 57.

Luis Pedro Peña Santiago, *Arte popular vasco* (Tercera edición), San Sebastián, 1976. Págs. 182-186.

Juan San Martín, «Hilari biribilak», *Hoja del Lunes de San Sebastián*, 29 de setiembre de 1980.



Segurako hilarria.



Segurako hilarria.